Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2024ko irailaren 24a, asteartea — 184 — Martes, a 24 de septiembre de 2024

BESTE BATZUK — 7 — OTROS

## DONOSTIAKO SUSTAPENA SA

*Hazteko Programaren oinarri arautzaileen laburpena. Donostiako enpresa proiektu berritzaileen hazkundea sustatzeko laguntza Programa. BDNS (Identif.): 785894.*

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/785894).

*Lehenengoa. Onuradunak.*

Deialdi honetan laguntzen onuradun izateko betekizun hauek bete beharko dira:

* Jarduera ekonomiko bat irabazi asmoz garatzen duen pertsona fisikoa izatea edo, ordenamendu juridikoaren arabera, baliozko moduan eratu den pertsona juridikoa izatea edo nortasun fisiko zein juridikorik ez duen elkartea izatea.

Pertsona juridikoa izanez gero, edo nortasun juridikorik edo fisikorik gabeko elkartea izanez gero, «Estrategia» laguntzetarako eta «Bono Teknologikoa» laguntzetarako, enpresa txikiaren baldintzak ere bete beharko dira.

* Laguntza-eskaera aurkezteko unean modu baliodunean eratuta egotea eta merkatura zuzendutako ustiapen ekonomikoa egitea.

* Salbuespen gisa, «Bonu Teknologikoa» laguntzen onuradun izan daitezke, gainera, enpresa bat eratzeko prozesuan dauden pertsona fisikoak.

* Diruz lagundutako jarduerak egiteko lantokia Donostian izatea.

* Tokiko proiektua izatea, ondoren zehazten den moduan:

— «Ekinn Talent» laguntzetarako, laguntzaren xede den kontratazioa egiten duen pertsonaren lantokia Donostian egongo da.

— «Estrategia» laguntzetarako, diruz lagundutako jarduera edo inbertsioa Donostian kokatuko da.

— I+G+Bko eragileen bidez proiektu teknologikoak garatzera bideratutako «Bonu Teknologikoa» laguntzetarako, diruz lagundutako proiektua garatzen den zentroa edo establezimendua Donostian egongo da.

* Proiektu berritzaileak edo I+G+Bkoak eta negozio-eredu eskalagarria aurkeztea.

Ezingo dira onuradun izan:

* Irabazi asmorik gabeko fundazioak eta elkarteak.

Ezohiko moduan, Ekinn Talent (1. kapitulua) laguntzen kasuan, irabazi asmorik gabeko fundazioak eta elkarteak onuradun izan ahalko dira, 109/2015 Dekretuak, ekainaren 23koak, arautzen duen Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) kide badira.

## FOMENTO DE SAN SEBASTIÁN, S.A.

*Extracto de las bases reguladoras del Programa Crecimiento. Programa de ayudas de apoyo para el crecimiento de proyectos empresariales innovadores de San Sebastián. BDNS (Identif.): 785894.*

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/785894).

*Primero. Personas beneficiarias.*

En esta convocatoria podrán ser personas beneficiarias de las ayudas, las personas que cumplan los siguientes requisitos:

* Que sea persona física que desarrolle una actividad económica a título lucrativo o sea persona jurídica, o una agrupación sin personalidad de las anteriores, válidamente constituidas conforme al ordenamiento jurídico.

En el caso de ser persona jurídica, o agrupación sin personalidad jurídica o física, para las ayudas «Estrategia» y para las ayudas «Bono Tecnológico» se deberán cumplir, además, los requisitos de pequeña empresa.

* Que esté constituida válidamente en el momento de presentación de la solicitud de la ayuda y que lleve a cabo una explotación económica dirigida a mercado.

* Excepcionalmente, para las ayudas «Bono Tecnológico podrán ser beneficiarias, además, las personas físicas en proceso de constitución de una empresa.

* Que tenga centro de trabajo en San Sebastián, en el que se desarrollen las actividades subvencionadas.

* Que se trate de un proyecto local, tal y como se define a continuación:

— Para las ayudas «Ekinn Talent» el centro de trabajo de la persona cuya contratación sea objeto de la ayuda estará ubicado en San Sebastián.

— Para las ayudas «Estrategia» la actividad o inversión subvencionada se ubicará en San Sebastián.

— Para las ayudas «Bono Tecnológico», dirigido al desarrollo de proyectos tecnológicos a través de agentes I+D+i el centro o establecimiento en el que se desarrolle el proyecto subvencionado estará ubicado en San Sebastián.

* Que presenten proyectos innovadores o de I+D+i y un modelo de negocio escalable.

No podrán tener la condición de persona beneficiaria:

* Las Fundaciones y Asociaciones sin ánimo de lucro.

De forma excepcional en el caso de las ayudas Ekinn Talent sí podrán ser beneficiarias las Fundaciones y Asociaciones sin ánimo de lucro que sean miembros de la Red Vasca de Ciencia Tecnología e Innovación (RVCTI), regulada por el Decreto 109/2015 de 23 de junio.

EK\CV GAO-I-2024-06742

* % 25ean edo hortik gorako maila batean irabazi asmorik gabeko erakundeen, ondare sozietateen, elkargo profesionalen eta/edo sektore publikoko erakundeen mendekoak edo jabetzakoak diren erakundeak (sektore publikoko erakunde gisa ulertuta 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen Espainiako ordenamendu juridikorako transposizioa egiten duenak, 3. artikuluan barne hartutakoak).

Ezohiko moduan, onuradun izan ahalko dira, atal honetan adierazitako kasuan egon arren, baldintza hauetako bat betetzen duten erakundeak:

— % 25etik gora bere mendeko edo jabetzako dituen erakundea Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) kide izatea.

— Erakunde eskatzailea bera ekainaren 23ko 109/2015 Dekretuak arautzen duen Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) kide izatea.

*Bigarrena. Xedea.*

Laguntza hauen objektua Donostia Sustapena, SA-ren laguntza jasotzeko moduko tokiko proiektu berritzaileen hazkundean laguntzea da. Laguntza hauekin dagoeneko abian diren eta hurrengo hazkunde faseetan dauden enpresa proiektuen eskalagarritasuna eta hazkundea sustatu nahi dira. Ondorioz, berritzaileak diren eta beren hazkundean inpaktua duten lan ildoak dituzten proiektuak izan beharko dira. Enpresa hauen produktibitatea areagotzea da helburua, bai jarduerei dagokienez eta baita kualifikazio handiko enplegu sorrerari dagokionez ere.

Horretarako, Donostia Sustapenak tokiko ehun ekonomikoaren eskura jarriko ditu laguntza ekonomiko hauek:

* Ekinn Talent (1. kapitulua): Proiektu berritzaileak garatzeko langile kualifikatuen kontratazioarako laguntza programa.

* Estrategia (2. kapitulua): Enpresetan proiektu estrategikoak garatzeko programa, enpresen lehiakortasuna hobetzeko.

* Proiektu teknologikoak I+G+B agenteen bidez garatzeko programak: Bonu Teknologikoak (3. kapitulua).

— Ceitekin lankidetzan (3.1 kapitulua).

— Tecnunekin lankidetzan (3.2 kapitulua).

— Vicomtechekin lankidetzan (3.3 kapitulua).

— Tecnaliarekin lankidetzan (3.4 kapitulua).

— IIS Biodonostiarekin lankidetzan (3.5 kapitulua).

— CIC NanoGUNErekin lankidetzan (3.6 kapitulua).

— CIC BiomaGUNErekin lankidetzan (3.7 kapitulua).

*Hirugarrena. Oinarri arautzaileak.*

Donostiako Sustapena SAren webgunean daude eskuragarri (https://www.fomentosansebastian.eus).

*Laugarrena. Zenbatekoa.*

Donostia Sustapenak honako zenbateko eta zenbateko maximoak emango ditu Hazkunde Programako laguntza-mota bakoitzerako:

* Ekinn Talent (1. kapitulua): Donostia Sustapenak 300.000 euro (hirurehun mila) bideratuko ditu Ekinn Talent Programara. Kontratu bakoitzeko gehienez 18.000 €-ko laguntza.

* Estrategia (2. kapitulua): Donostia Sustapenak hirurehun mila (300.000 €) euro bideratuko ditu Estrategia laguntzetara Gehienez 20.000 €-ko laguntza, aurkeztutako gastu-mota bakoitzaren mugen arabera.

* I+G+Bko eragileen bidez proiektu teknologikoak garatzeko programak: Bonu teknologikoak (3. kapitulua): Donostiako Sustapenak berrehun eta hamar mila eta berrehun (210.200) euro bideratuko ditu programa honetara.

* Las entidades dependientes o participadas en más de un 25 % por entidades sin ánimo de lucro, por sociedades patrimoniales, por Colegios Profesionales, y/o por entidades pertenecientes al Sector Público (entendiendo por tales, aquellas entidades incluidas en el artículo 3 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014).

Excepcionalmente, sí podrán tener la condición de persona beneficiaria las entidades que, aun encontrándose en el supuesto descrito en este apartado, cumpla alguna de las siguientes condiciones:

— Que la entidad de la que dependen o que les participa en más de un 25 %, sea miembro de la Red Vasca de Ciencia Tecnología e Innovación (RVCTI).

— Que la propia entidad solicitante sea miembro de la Red Vasca de Ciencia Tecnología e Innovación (RVCTI), regulada por el Decreto 109/2015 de 23 de junio.

*Segundo. Objeto.*

El objeto de estas ayudas es apoyo al crecimiento de proyectos innovadores locales que puedan ser apoyados por Fomento de San Sebastián S.A. A través de estas ayudas se pretende apoyar la escalabilidad y crecimiento de dichos proyectos empresariales tras superar su puesta en marcha y que se encuentren en las siguientes fases de crecimiento. Deberán de ser proyectos, por lo tanto, que tengan calidad de innovador y que presenten líneas de trabajo que tengan un impacto en el crecimiento de los mismos, a través del incremento de la productividad de las empresas en términos de actividad y de generación de empleo de alta cualificación.

Para tal fin, Fomento de San Sebastián pone a disposición del tejido económico local las siguientes ayudas económicas:

* Ekinn Talent (capítulo 1): Programa de ayudas dirigido a la contratación de personal cualificado para el desarrollo de proyectos innovadores.

* Estrategia (capítulo 2): Programa para el desarrollo de proyectos estratégicos en las empresas para su mejora competitiva.

* Programas dirigidos al desarrollo de proyectos tecnológicos a través de agentes I+D+i: Bonos Tecnológicos (capítulo 3).

— En colaboración con Ceit (capítulo 3.1).

— En colaboración con Tecnun (capítulo 3.2).

— En colaboración con Vicomtech (capítulo 3.3).

— En colaboración con Tecnalia (capítulo 3.4).

— En colaboración con IIS Biodonostia (capítulo 3.5).

— En colaboración con CIC NanoGUNE (capítulo 3.6).

— En colaboración con CIC BiomaGUNE (capítulo 3.7).

*Tercero. Bases reguladoras.*

Disponibles en la página web de Fomento de San Sebastián S.A. (https://www.fomentosansebastian.eus).

*Cuarto. Cuantía.*

Fomento de San Sebastián destinará las siguientes cuantías e importes máximo de ayuda para cada uno de los tipos de ayuda recogidas en el Programa Crecimiento:

* Ekinn Talent (capítulo 1): Fomento de San Sebastián destinará al Programa Ekinn Talent la cuantía de (trecientos mil) 300.000 euros. Ayuda máxima de 18.000 € por contrato.

* Estrategia (capítulo 2): Fomento de San Sebastián destinará a las ayudas Estrategia la cuantía de trescientos mil (300.000 €) euros. Ayuda máxima de 20.000 € en función de los límites de cada tipo de gasto presentado.

* Programas dirigidos al desarrollo de proyectos tecnológicos a través de agentes I+D+i: Bonos Tecnológicos (capítulo 3): Fomento de San Sebastián destinará a este programa la cuantía de doscientos diez mil doscientos (210.200) euros.

EK\CV GAO-I-2024-06742

— Ceit-ekin lankidetzan: bonuaren gehienezko zenbatekoa 12.500 €.

— Tecnun-ekin lankidetzan: bonuaren gehienezko zenbatekoa 8.000 €.

— Vicomtechekin lankidetzan: bonuaren gehieneko zenbatekoa 14.500 €.

— Tecnaliarekin lankidetzan: bonuaren gehienezko zenbatekoa: 14.500 €.

— IIS Biodonostiarekin elkarlanean: bonuaren gehienezko zenbatekoa 12.500 €.

— CIC NanoGUNErekin lankidetzan: bonuaren gehieneko zenbatekoa: 15.500 €.

— CIC BiomaGUNErekin lankidetzan: bonuaren gehieneko zenbatekoa: 15.500 €.

*Bosgarrena. Aurkezteko epea eta modua.*

Eskaerak modu telematikoan aurkeztu beharko dira Donostiako Sustapenaren webgunearen bidez (www.fomentosansebastian.eus), eta laburpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik baliabide ekonomikoak agortu arte aurkeztu ahal izango dira. Kasu horretan, agortze hori Donostiako Sustapenaren webgunean argitaratuko da, edo, bestela, deialdia itxi arte, hau da, urriaren 30era arte.

*Seigarrena. Ordaintzeko era eta epeak.*

Eskabideak sarrera-erregistroaren hurrenkeraren arabera ebaluatu eta ebatziko dira, baliabide ekonomikoak agortu arte.

Hazkunde laguntzen ordainketa eta justifikatzeko epea desberdinak izango dira, eskatutako laguntza motaren arabera, eta Hazkunde Programaren oinarri arautzaileetan adierazten den bezala.

Donostia, 2024ko irailaren 17a.—Ane Oyarbide Ochoa, Ekonomia eta Tokiko Enpleguko zinegotzi ordezkaria.

(6742)

— En colaboración con Ceit: cuantía máxima del bono 12.500 €.

— En colaboración con Tecnun: cuantía máxima del bono 8.000 €.

— En colaboración con Vicomtech: cuantía máxima del bono 14.500 €.

— En colaboración con Tecnalia: cuantía máxima del bono 14.500 €.

— En colaboración con IIS Biodonostia: cuantía máxima del bono 12.500 €.

— En colaboración con CIC NanoGUNE: cuantía máxima del bono 15.500 €.

— En colaboración con CIC BiomaGUNE: cuantía máxima del bono 15.500 €.

*Quinto. Plazo y forma de presentación.*

Las solicitudes deberán presentarse de forma telemática a través de la web de Fomento de San Sebastián (www.fomentosansebastian.eus) y podrán presentarse desde el día siguiente al de la publicación del extracto en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, y hasta agotar los recursos económicos, en cuyo caso, dicho agotamiento se publicará en la web de Fomento de San Sebastián o, en otro caso, hasta el cierre de la convocatoria, que se producirá el 30 de octubre de 2024.

*Sexto. Forma y plazos de pago.*

Las solicitudes serán evaluadas y resueltas por orden de registro de entrada hasta agotar los recursos económicos.

El abono y el plazo de justificación de las ayudas crecimiento se realizará de diferente manera en función del tipo de ayuda solicitada, y tal y como se indica en las bases reguladoras del Programa Crecimiento.

San Sebastián, a 17 de septiembre de 2024.—La concejala delegada de Economía y Empleo Local, Ane Oyarbide Ochoa.

(6742)

EK\CV GAO-I-2024-06742